



Honekin batera bidaltzen dizut "Gipuzkoan eskulangintza sektorea sustatzeko plana" izeneko 2021eko dirulaguntza programaren barruan egin duzun laguntza-eskaeraren ebazpena, eta emandako dirulaguntzari buruzko zenbait alderdi gogorarazi nahi dizkizugu.

1.— 11. oinarria. Pertsona eta entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

11.1. Pertsona eta entitate onuradunek dirulaguntzak onartzeak martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea dakar, baita oinarri arautzaile hauetan ezartzen direnak ere.

11.2. Diruz lagundutako proiektuaren inguruan argitaratzen diren materialetan eta egiten diren komunikazio eta hedapen jardueretan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu behar dute, euskararen erabilera normalizatzeko plana (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jardura esparruan 2018—2022 aldirako onartzen duen 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak xedatutakoaren arabera.

11.3. Generoaren ikuspegia txertatu beharko dute diruz lagundutako proiektuaren diseinuan eta garapenean.

11.4. Hizkuntzaren erabilera ez—sexista bermatu beharko dute diruz lagundutako proiektuaren komunikazio eta argitarapen guztietan.

11.5. Dirulaguntzaren xede diren jardueri eta proiektuei Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak ematen dien sustapenari eta finantzaketari publizitate egokia eman beharko die. Hori horrela, erakunde irudia jarri beharko dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudi korporatiboaren inguruko arauen arabera eta «Gipuzkoako Artisanuak» logotipoa; eta finantzaketa publikoaren aipamena egin beharko dute kartel, idatzizko testu, bitarteko elektronikoko eta ikus—entzunezko eta abarretan, eta komunikabideetan egiten diren aipamen guztietan.

GARRANTSITSUA

Adjunto a la presente, le enviamos la resolución a su solicitud de subvención correspondiente al programa de ayudas del "Plan para el fomento del sector artesanal del Gipuzkoa del ejercicio 2021, y queremos recordarle algunos aspectos acerca de la subvención concedida

1.— Base 11.ª Obligaciones y compromisos de las personas y entidades beneficiarias.

11.1. La aceptación de las subvenciones por parte de las personas y entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril y demás normativa aplicable en materia de subvenciones y a las que se desprenden de las presentes bases reguladoras.

11.2. Deberá garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones, en la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del proyecto subvencionado, de acuerdo con lo dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 26 de junio de 2018 que aprueba el plan de normalización del uso del euskera en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus organismos autónomos para el período 2018—2022 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 149 de 3 de agosto de 2018).

11.3. Deberán incorporar la perspectiva de género en el diseño y desarrollo del proyecto subvencionado.

11.4. Deberán garantizar el uso no sexista del lenguaje en todo tipo de comunicaciones y publicaciones del proyecto subvencionado.

11.5. Deberán dar la adecuada publicidad a la promoción y financiación de los proyectos o actuaciones objeto de subvención por parte del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa, mediante la inclusión de su imagen institucional, conforme a las normas de imagen corporativa de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como de leyendas relativas a la financiación pública y el logotipo de «Gipuzkoako Artisanuak», en carteles, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, etc.; o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

IMPORTANTE:



Euskarri idatzietarako, irratirako edo telebistarako iragarkia prestatu ondoren, hura argitaratu eta hedatu aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Zerbitzura igorriko da, egiaztatu dezaten ea egokia den eta irudi korporatiboaren inguruan Aldundiak duen Arandia betetzen duen.

11.6. Dirulaguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, dirulaguntza itzuli beharko da eta 16. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

2.— 13. oinarria. Dirulaguntzen ordainketa.

13.1. Ordainketa dirulaguntza jaso duen jarduerak gauzatzeko justifikazioa aurkeztu eta gero egingo da.

Hala ere, jardueraren sektorearen eta entitate onuradunen ezaugarriak (irabazi asmorik gabeko elkarteak eta autoenplegurako enpresa—proiektuak) aintzat harturik, aurretiazko ordainketak egin ahal izango dira dirulaguntza jaso duten jarduerak gauzatzeko ezinbesteko finantzaketa gisa laguntzaren aurrerakinak proiektuari ekiten zaizkionean eta hasiera hori behar bezala egiaztatuta dagoenean ordaindu ahal izango dira, betiere, baliabide nahikoa bada eta dirulaguntza osoaren % 60 gaintzen ez bada.

Gainerakoa, laguntzaren xede diren jarduerak bukatzen direnean. Aurrez, dena den, 14.3 oinarrian zehaztutako dokumentazioa jasotzen duen kontu justifikagarria aurkeztu beharko da.

13.2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ezin izango da inolako ordainketarik egin erakunde onuradunak zerga—betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituen bitartean. Hori dela eta, ordaindu baino lehen, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

GARRANTSITSUA:

Una vez elaborado el original de publicidad (en medios escritos), la cuña (radio) o el spot (TV) y antes de su publicación o difusión, se hará traslado al Servicio de Promoción Económica de la Diputación Foral de Gipuzkoa para verificar si es correcto y cumple la normativa en materia de imagen corporativa de la Diputación.

11.6. El traslado del domicilio social, fiscal o de parte significativa o relevante de sus centros productivos fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa en un plazo de cinco años desde la concesión de la subvención, será causa de reintegro de la subvención y se estará a lo establecido en la base 16.^a.

2.— Base 13.^a Pago de las subvenciones.

13.1. El abono de la subvención se realizará previa presentación de la justificación de la realización de la actividad para la que se concedió.

No obstante, en atención a las características del sector de actividad y del tipo de entidades beneficiarias (asociaciones sin fines de lucro y proyectos empresariales de autoempleo), se podrán realizar pagos anticipados como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención. Estos anticipos se podrán abonar siempre que existan disponibilidades presupuestarias y no superen el 60 % del total de la subvención concedida, a partir de la iniciación del proyecto, que deberá justificarse convenientemente.

El abono de la cantidad restante se realizará a la conclusión de las actuaciones objeto de la misma, previa presentación de la cuenta justificativa que contenga la documentación que se especifica en la base 14.3.

13.2. Según prevé el artículo 32 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, no podrán realizarse pagos en tanto la entidad beneficiaria no se halle al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social. Por ello, previamente a los pagos, el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos; en caso de que ello no fuera posible, podrá requerirse excepcionalmente su aportación por la persona solicitante.

IMPORTANTE:



Diruz lagundutako proiektuaren garapenean, 2021. urtean egiten ez den gastua ordaintzeko eskubidea, ez da 2022 ekitaldian txertatuko. Beraz, 2021. urtean egiten ez den gastuaren zenbatekoaren kobrantza galdu egingo da, dagokion kontu sailaren kargu.

3.— 14. oinarria. Diruz lagun daitezkeen gastuak eta dirulaguntzaren justifikazioa.

14.1. Entitate onuradunek diruz lagundutako jarduera gauzatu izana frogatu beharko dute, baita jarduera horrek sortutako gastuak ere.

14.2. Dirulaguntzaren xedeko proiektua edo jarduera hilaibeteko epearen barruan zuritu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jarduera hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarriko dena, amaitzen denetik kontatuko da.

14.3. Diruz lagundutako proiektua edo jarduera amaitutakoan, pertsona edo entitate onuradunek kontu zurigarri bat aurkeztu beharko dute, honako agiri hauek erantsita:

a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete izana zuzitzen duen jarduera memoria.

Eskulangintzako azokak eta lehiaketak antolatzen direnean: eskaera egin dutenen artean onartutako eta baztertutako eskulangintzako pertsonen eta enpresen zerrenda arrazoitua; hautaketa prozesua eta azoka azaltzen duen memoria (jardueren eta burututako lantegien deskripzioa, horiek hedatzeko eta komunikatzeko xedez euskarri batzuetan eta besteetan burututako ekintzak justifikatzen dituzten agiriak).

b) Memoria ekonomikoa, jardueren kostua frogatuko duena eta eduki hau izango duena:

— Jardueraren gastu eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, horren jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data bilduko dituena. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, desbiderapenak ere adieraziko dira.

— Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga baliokide diren edo administrazioan eragina duten dokumentuak (oriinalak edo fotokopia konpultsatua) aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan gehitu direnak, alegia, eta beharko balitz, ordainduaren edo dudarik gabe konprometitu denaren dokumentazioa.

— Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili

El derecho al pago de todo gasto no ejecutado en 2021 en el desarrollo del proyecto subvencionado no será incorporado al ejercicio 2022, lo que conlleva la pérdida del cobro del importe del gasto no ejecutado en 2021 con cargo a la partida correspondiente.

3.— Base 14.ª Justificación de la subvención.

14.1. La entidad beneficiaria deberá justificar la realización de la actividad subvencionada, así como los gastos e inversiones generados por dicha actividad.

14.2. Los proyectos objeto de subvención deberán justificarse en un plazo de un mes a contar desde la finalización del periodo de ejecución del proyecto o actividad, que se fijará en la convocatoria anual.

14.3. La entidad beneficiaria deberá justificar la realización de la actividad subvencionada, así como los gastos e inversiones generados por dicha actividad:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención.

En el caso de organización de ferias y certámenes artesanales: listado motivado de las personas y empresas artesanas solicitantes, admitidas y excluidas; proceso de selección; y memoria descriptiva de la feria (descripción de actividades, talleres realizados, justificación documental de las acciones de difusión y comunicación en los diferentes soportes empleados).

b) Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, con el siguiente contenido:

— Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas.

— Las facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa (originales o fotocopia compulsada) incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso la documentación acreditativa del pago realizado o fehacientemente comprometido.

— Una relación detallada de otros ingresos o



diren bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehetasunezko zerrenda, baita horien zenbatekoak eta jatorriak ere.

— Entitate onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 15.000 euro edo hortik gorako gastu subentzionagarriak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, non eta laguntzaren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahikoa enpresa edo profesional ez dagoenean edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez den.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

14.4. Dirulaguntza justifikatzeko ezarritako epea amaitzean oinarri honetako 3. atalean ezarritako agiriak aurkeztu ez badira, organo eskudunak onuradunari 15 eguneko epean agiri horiek aurkezteko eskatu ahalko dio. Epe hori amaitzean ez baditu aurkeztu onuradunak, 16. oinarrian ezarritako ondorioak gertatuko dira.

14.5. Pertsona eta entitate onuradunek 4 urtez gorde beharko dituzte dirulaguntzaren oinarrian dagoen jarduera bete izana eta horretarako jasotako dirubideen aplikazioa egiaztatzen dituzten agiriak. Epe hori kontatzen hasiko da aipatu agiriak aurkezteko ezarritako dagoen denbora amaitzen denetik aurrera.

14.6. Oinarri honetako 3. atalean aipatutako agiriak aurkeztu ostean, espedientea bideratzen duen organoak dagokion egiaztapena egingo du.

Egiaztapen horretatik ondorioztatzen badu diruz lagundu zitekeen gastua emandako dirulaguntza baino txikiagoa izan dela, dirulaguntza birdoitu egingo du. Dirulaguntza justifikatzeko ezarritako eskakizunak edo dirulaguntzaren xedea erabat edo neurri batean hautsiz gero, erakunde eskatzaileari jakinarazi egingo zaio, egindako egiaztapenaren emaitzekin batera, eta dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu duela

subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

— En el supuesto de haber incurrido en gastos subvencionables por importe igual o superior a 15.000 euros en suministros de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, documentación acreditativa de la elección realizada entre las tres ofertas solicitadas salvo que por las especiales características de la asistencia no exista en el mercado suficiente número de empresas o profesionales que la preste o el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos; en caso de que ello no fuera posible, podrá requerirse excepcionalmente su aportación por la persona solicitante.

14.4. Transcurrido el plazo establecido para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación a que se refiere el apartado 3 de la presente base, el órgano competente podrá requerir a la entidad beneficiaria para que en el plazo de 15 días aporte la misma. La falta de presentación de la justificación, transcurrido este nuevo plazo, tendrá los efectos previstos en la base 16ª.

14.5. Las personas y entidades beneficiarias de la subvención están obligadas a conservar, durante un plazo de 4 años, los justificantes de la realización de la actividad que fundamenta la concesión de la subvención, así como la aplicación de los fondos percibidos. El citado plazo computará a partir del momento en que finalice el periodo establecido para presentar la citada justificación.

14.6. Una vez presentada la documentación señalada en el apartado 3 de esta base, se realizará por el órgano instructor del expediente la correspondiente comprobación.

Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el coste subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida se reajustará la misma. En el caso de incumplimiento total o parcial de los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la persona interesada junto a los resultados de la comprobación realizada y se



adierazteko prozedura hasiko da, edo, behar izanez gero, 16. oinarrian ezarritakoaren arabera, ordaindutako zenbateko osoa edo zati bat itzultzeko prozedura.

14.7. Kostuak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, betiere agiri horiek egiazkoak direla, osorik daudela eta gorde daitezkeela bermatzen bada.

4.— 15. oinarria. Ebazpena aldatzea.

15.1. Diruz lagundutako jarduera burutzeko ezarri den epea amaitu baino lehen, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea eska dezake onuradunak, ezarritako epea luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko, diruz lagundutako aurrekontu sailak aldatzeko edota jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoiak ustekabeko zirkunstantzietan oinarritzen denean edota jarduera burutzeko premiazko zatitza jotzen direnean, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta besteren batzuk kaltetzen ez badira.

5.— 16. oinarria. Ez—betetzeak eta itzulketak.

16.1. Oinarri hauetan, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako edozein eskakizun edo betebeharrak ez bada betetzen, pertsona ala entitate onuradunak dirulaguntza jasotzeko eskubidea osorik edo zati batean galdu duela deklaratu da, eta jasotako dirua osorik edo zati batean itzuli beharko du, dagozkion berandutza interesekin batera, aipatu Foru Arauak 35. artikuluan xedatutakoaren arabera; halaber, aipatu foru arauaren 49. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituz, hortik erator daitezkeen erantzukizunak eskatuko zaizkio.

16.2. Ez—betetzeak mailakatzeko proporzionaltasun irizpideak erabiliko dira, eta organo instruktoreak balioetsiko ditu, proiektu osoarekiko eta jasotako zenbatekoekiko egindako lanak kontuan hartuta.

16.3. Proiektuaren bideragarritasunagatik edo izaeragatik, edo behar bezala zuritutako bestelako arrazoiengatik ezingo balitz lana bukatu edo aurrera jarraitzea komeniko ez balitz, dirulaguntza bukatutzat eman eta eten ahal izango da, bi aldeek artean adostuta.

16.4. Borondatezko itzulketatzat jotzen da pertsona edo

iniciará el procedimiento para declarar la pérdida del derecho de cobro de la ayuda o, en su caso, el procedimiento de reintegro total o parcial previsto en la base 16ª.

14.7. La acreditación de los costes se efectuará mediante copia electrónica, informática o telemática de los documentos originales, siempre que queden garantizadas su autenticidad, integridad y conservación.

4.— Base 15.ª Modificación de la resolución.

15.1. Las entidades beneficiarias podrán solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido, modificación en los apartados presupuestarios subvencionados o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que podrán ser autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas.

5.— Base 16.ª Incumplimientos y reintegros.

16.1. El incumplimiento por parte de la persona o entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases, en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente y al pago de los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la citada Norma Foral y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en su artículo 49 y siguientes.

16.2. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados por el órgano instructor en función de los trabajos realizados respecto a la totalidad del proyecto y a los importes percibidos.

16.3. Cuando no se pudiera o no interesara proseguir el desarrollo del trabajo, por causas inherentes a la viabilidad o naturaleza del proyecto, u otras, debidamente justificadas, se podrá resolver e interrumpir la subvención de mutuo acuerdo.

16.4. Se entiende por devolución voluntaria aquella que



entitate onuradunak dirulaguntza ematen duen organoak eskatu gabe egiten duena.

Itzultzeko prozedura hasteko, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo foru diputatuari, eta bertan, datu hauek sartu behar ditu, nolanihi ere:

- Entitatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Ordezkararen izen—abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Borondatezko itzul-keta egiteko arrazoen azalpena.
- Tokia eta data.
- Sinadura.

Idatzi horrekin batera, agiri bat aurkeztu behar du egiaztatzeko itzulketa egin dela deialdiak zehaztutako finantzaerakundearen kontu zenbakian.

Borondatezko itzulketa gertatzen denean, dagozkion berandutza interesak kalkulatu dituzte dirulagun-tza ematen duen organoak.

6.— Jarduerak hasteko data.

Diruz lagundutako jarduerak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko dira.

7.— Proiektuak bukatzeko data.

Onuradunek **2022ko otsailaren 25erako** amaituta izan behar dituzte diruz lagundutako proiektuak.

INFORMAZIO GEHIAGO

Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzeko programaren oinarri arautzaileak aldatzea eta 2021eko deialdia. **(G.A.O. 2021eko apirilak 20, 71 zk.)**.

Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzeko programaren oinarri arautzaileak. **(G.A.O. 2020ko ekainak 18, 114 zk.)**.

es realizada por la persona o entidad beneficiaria sin el previo requerimiento del órgano que concede la subvención.

El procedimiento de devolución se iniciará mediante escrito dirigido a la diputada foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural en el que deberá incluir, en todo caso:

- Nombre de la Entidad y número de identificación fiscal.
- Nombre y Apellidos del representante y número de identificación fiscal.
- Exposición de los motivos por lo que se procede a la devolución voluntaria.
- Lugar y fecha.
- Firma.

A dicho escrito se acompañará el documento en el que se acredite que la devolución se ha realizado en el número de cuenta de la entidad financiera que se determine en la convocatoria.

Cuando se produzca la devolución voluntaria, el órgano que concede la subvención calculará los intereses de demora correspondientes.

6.— Plazo de inicio de las actuaciones.

Las actuaciones objeto de subvención deben iniciarse a partir del 1 de enero de 2021.

7.— Fecha de ejecución de proyectos.

Las personas y entidades beneficiarias deberán concluir la ejecución de los proyectos objeto de subvención para el **25 de febrero del 2022**.

MAS INFORMACIÓN

Modificación de Bases reguladoras y convocatoria de 2021 del “Programa de fomento del sector artesanal de Gipuzkoa” **(B.O.G. Nº 71 de 20 de abril de 2021)**.

Bases reguladoras del programa de fomento del sector artesanal de Gipuzkoa” (B.O.G. Nº 114 de 18 de junio de 2020).